

**“SAREAN EUSKARAZ” JAIALDI-JARDUNALDIEN ANTOLAKUNTZA KONTRATATZEKO  
BALDINTZA-AGIRIA**

**Espedientea:** 0005-CP01-2026-000057

**Kontratazio-organoa:** Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko kudeaketako zuzendaritza.

**Unitate kudeatzailea:** Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua.

I. ZATIA – BALDINTZA PARTIKULARRAK .....	4
1. KONTRATUAREN XEDEA .....	4
2. KONTRATAZIO-ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA.....	5
3. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA.....	5
4. GAUZATZEKO EPEA.....	5
5. LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ....	6
6. PERTSONA EDO ENTITATE LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.....	7
7. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA .....	8
8. KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA.....	8
9. ESKAINTZEN AURKEZPENA .....	9
9.1. Tokia eta epea .....	9
9.2. Proposamenen forma eta edukia .....	10
10. KONTRATAZIO-MAHAIA.....	13
11. DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA .....	14
12. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK .....	15
12.1. Irizpide kualitatiboak: 50 puntu, gehienez .....	15
12.2. Formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideak: gehienez 50 puntu.....	19
12.3. Eskaintza baxuegiak.....	20
12.4. Berdinketak hausteko irizpideak .....	20
13. ADJUDIKAZIODUN IZATEKO PROPOSATUTAKO ENTITATE LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA .....	20
14. KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA.....	22
15. KONTRATUA EGIKARITZEA.....	22
16. LANEN ORDAINKETA.....	23
17. ENTITATE ADJUDIKAZIODUNAK ORDAINDU BEHARREKO GASTUAK .....	23
18. KONTRATUA BETETZEA.....	24
18.1. Ez-betetzeak .....	24
18.2. Zigorrak.....	25
18.3. Arriskua eta mentura.....	25
18.4. Kontratua egikaritzeak sorturiko kalte-galerak .....	25

18.5.	Kontratastatik lan-araudia betetzea .....	26
19.	AZPIKONTRATAZIOA .....	26
20.	DATUAK BABESTEIA ETA KONFIDENTZIALTASUNA .....	27
21.	ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK .....	27
II. ZATIA – ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK .....		28
22.	“SAREAN EUSKARAZ” JAIALDI-JARDUNALDIEN ANTOLATZEKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN AGIRIA	28
22.1.	Kontratuaren xedea .....	28
22.2.	Jaialdi-jardunaldien diseinua .....	29
22.3.	Entitate adjudikaziodunaren betebeharrak espezifikoak .....	30
22.3.1.	Koordinazio- eta jarraipen-lanak .....	31
22.3.2.	Jaialdi-jardunaldien antolaketa .....	31
22.3.3.	Lantaldea .....	32
22.3.4.	Egindako lanaren balorazioa eta ebaluazioa .....	33
22.3.5.	Antolaketa eta funtzionamendua .....	33
23.	KONTRATAZIOERAKO BESTE ZEHAZTAPEN TEKNIKO BATZUK .....	34
23.1.	Istripuak eta aseguruak .....	34
23.2.	Egokitzapenak atzerapenen aurrean .....	34
23.3.	Legezko betebeharrak .....	34
23.4.	Proiektuaren kalitate teknikoak .....	35
23.5.	Enpresaren kargurako zerbitzu osagarriak .....	35
III. ZATIA – ERANSKINAK .....		36
I. ERANSKINA .....		37
II. ERANSKINA .....		38
III. ERANSKINA .....		39
IV. ERANSKINA .....		40
V. ERANSKINA .....		42

## I. ZATIA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

### 1. KONTRATUAREN XEDEA

---

Baldintza-agiri honek xede du “Sarean Euskaraz” antolatzea: informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) eta kultura digitalaren eremuan gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko ekimena.

Hain zuzen, “Sarean Euskaraz” ekimenaren helburua da gazteek, euskarazko edukia kontsumitzeaz gain, ingurune digitalean euskara komunikazio-hizkuntza gisa barnera dezaten lortzea. Horretarako, garrantzi berezia eman nahi zaio hizkuntzaren bizitasunari, hain zuzen, gazteek denbora asko pasatzen duten espazioetako batean: sare sozialak, bideojokoak, streaming plataformak, edukia sortzeko tresnak, etab. Hori dela eta, hitzaldi teorikoetan oinarrituriko jardunaldiak antolatu ordez, ikuspegi praktikoa eta motibatzailea duten jaialdi-jardunaldi batzuk antolatzearen alde egin da. Hala, jaialdi-jardunaldi horietan, topo egiten dute hizkuntza-identitateak eta abangoardia teknologikoak. Azken batean, helburua da gazteek hautematea euskarazko ekosistema digitala nahikoa erakargarria dela, haien bizitza digitalean euskaraz ere egiteko.

Zehazki, honako lan hau kontratatuko da: Nafarroako Foru Komunitateko DBHko 4. maila euskaraz egiten ari diren ikasleei (euskarazko murgiltze-eredua) zuzendutako jaialdi-jardunaldiak diseinatu, antolatu eta aurrera eramatea. Jaialdi-jardunaldiak Baluarte Biltzar Jauregian edo Nafarroa Arena pabiloian egingen dira. Horrez gain, lan hauek ere egin beharko dira: eremuak eta materialak erreserbatu, koordinazio-lana egin ikastetxeekin, ikasleen garraioaz arduratu, jarraipena egin eta ebaluatu.

Ibilbide luzea du **Sarean Euskaraz** ekimenak; urtero egiten da, udazkenean, eta aurrean, hamargarren edizioa izanen da.

Baldintza-agiri honetan, “Sarean Euskaraz” jaialdi-jardunaldiak antolatzeko orduan kontuan izan beharreko xedapen eta baldintzak zehazten dira, zeintzuen bidez definitzen baitira aldeek izanen dituzten eskubide eta betebeharrak, alderdi juridiko, administratibo, ekonomiko nahiz teknikoetan. Hartarako, aurrera eraman asmo diren jarduketa-ildoak zehaztu dira, kontuan izanik dokumentu honen II. zatian jasotzen diren zehaztapen teknikoak.

Kontratu administratiboa izanen da, eta kontratugileek honako hauek bete beharko dituzte: baldintza-agiri honetan ezarritakoa, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak.

Lizitazio honetan, sorta bakarra eskaintzen da; izan ere, programaren zereginak lotura dute elkarren artean, eta, beraz, batera egin beharrekoak dira. Kontratuaren xedean jasotako prestazioak ezin dira atalka edo modu independentean bete, horrek zailtasun batzuk ekarriko bailituzke ikuspuntu teknikitik, kontratua egoki gauzatu ahal izateko.

Hona CPV kodeak, Europako Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 EE Erregelamenduaren arabera:

79950000-8 Erakusketak, azokak eta kongresuak antolatzeko zerbitzuak

79952100-3 Kultur ekitaldiak antolatzeko zerbitzuak

80000000-4 Irakaskuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak

80310000-0 Gazteentzako irakaskuntza-zerbitzuak

80420000-4 Ikaskuntza elektronikoko zerbitzuak

80500000-9 Prestakuntza-zerbitzuak

80533200-1 Informatikako ikastaroak

## **2. KONTRATAZIO-ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA**

---

Kontratazio-organoa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean eta hura ordezkaturik. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua izanen da organo kudeatzailea.

## **3. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA**

---

Baldintza-agiri hauek dituzten lanak adjudikatuko dira Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera, Europar Batasuneko atalasetik gorako prozedura ireki bidez. Espedientea izapidetze arruntekoa da.

## **4. GAUZATZEKO EPEA**

---

Kontratua gauzatzeko epea kontratua formalizatzen den egunean hasi eta 2026ko abenduaren 31ra artekoa izanen da –edo luzapenik izanez gero, dagokion urtera artekoa–, eta, ahal dela, azaroaren 20a baino lehen eginen dira jaialdi-jardunaldiak. Kontratua beste lau urtez luzatu ahal izanen da, berariaz eta muga-egunera iritsi baino lehen, baldin eta alderdiek hala adosten badute eta kontratazio-organoak onartzen badu. Kontratua luzatzeko borondatea adierazteko, entitate

kontratatuak mezu elektronikoa bidali beharko du Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren helbide honetara: euskarabidea@navarra.es

Ez da kontratuaren luzapena egiterik izanen, baldin eta, epea bukatutakoan, ez bada bi alderdien adostasuna jasotzen duen idazkirik edo beste kontratu bat indarrean sartzen bada.

## **5. LIZITAZIOAREN GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA**

---

Kontratuaren balio zenbatetsia –zeina Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 42. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatzen baita– 495.866,05 eurokoa da, BEZik gabe (600.000 euro, BEZa barne), kontuan izanik lehen kontratua eta aurrerantzean egin ahal diren 4 luzapenak. Kopuru hori honela banatuko da:

2026. urtean: 99.173,21 euro (BEZik gabe).

2027. urtean: 99.173,21 euro (BEZik gabe).

2028. urtean: 99.173,21 euro (BEZik gabe).

2029. urtean: 99.173,21 euro (BEZik gabe).

2030. urtean: 99.173,21 euro (BEZik gabe).

Lizitazioaren urteko prezioa 99.173,21 eurokoa izanen da, gehienez, BEZik gabe (120.000 euro, BEZa barne). Kontratuak prezio hori izanen du gehienez, eta, beraz, erakunde lizitatzailleen eskaintzek ezin izanen dute hura gainditu.

Partida honen kargura egingen da kontratuaren ordainketa: 2026ko gastu-aurrekontuko B30002 B3200 2279 334100 partida (“IKTetan euskara erabiltzeko ‘Sarean euskaraz’ programa”). Luzapenik izanez gero, ordainketa egingen da lizitazioa luzatzen den urteetako aurrekontuetan gaituko diren aurrekontu-partida baliokideen kontura, baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago.

Ez da onartuko prezioak eguneratzerik, kontratua indarrean dagoen bitartean.

Urte bakoitzeko prezioa, honela banakatuko da:

- A atala: 95.000 euro, jaialdi-jardunaldien eremua erreserbatzeko, jaialdi-jardunaldiak diseinatu, antolatu eta aurrera eramateko eta kontratuaren xedean jasotako gainerako jarduerak egiteko.
- B atala: 25.000 euro garraiorako.

Gehienez 25.000 euro bideratu ahal izanen dira garraiora. Autobus bakoitzeko 1.000 eurotik beherako prezio unitarioa eskaini beharko da (BEZa barne).

## **6. PERTSONA EDO ENTITATE LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

---

Kontratazio-prozeduran parte hartzen ahalko dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoek –espainiarrak nahiz atzerritarrak–, kontratatzeke debekurik edo bateraezintasunik ez badute, interes-gatazkan ez badaude eta frogatzen badute eskatutako kontratu-prestazioa egikaritzeko behar adinako kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala dutela. Eskaintzak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira baldintza horiek.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak kontratua egin ahalko du aldi baterako enpresa-elkarteekin (ABEE) edo batera parte hartzen duten pertsonekin, Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan xedatzen diren baldintzetan. Baterako parte-hartze hori dokumentu pribatu bidez egiaztatu beharko da. Dokumentu horretan, lizitatzailleek adierazi behar dute batera aurkeztu nahi dutela, eta, halaber, bakoitzaren partaidetza-ehunekoa zehaztu. Azkenik, dokumentu horretan, ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko da, zeinak ordezkatu eta bere gain hartuko baititu ahalmen guztiak –beharrezko direnak taldeko kide guztien eskubideak erabiltzeko eta kontratutik ondorioztatutako betebeharrak betetzeko–, hura azkendu arte.

Aldi baterako enpresa-elkarte batean edo talde batean parte hartzen duten lizitatzailleek betebeharrak solidarioa izanen dute.

Lizitazio-eskaintza bateratu bat aurkezten duten enpresek ezin izanen dute aurkeztu bakarkako proposamenik, ez eta ABEE batean txertatuta edo beste enpresa batzuekin batera ere. Debeku hori hausten bada, ez da onartuko entitate lizitatzaille arau-hausleak sinatutako eskaintzarik.

Lizitazioaren ondorioetarako, ABEE baten barruan aurkezten diren enpresek eta batera parte hartzen duten pertsonak adierazi beharko dituzte enpresa edo taldea osatzen duten kideen izen-abizenak eta inguruabarrak, eta, halaber, kide bakoitzak duen partaidetza. Bestalde, adierazi beharko dute, kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa-elkarte gisara formalki eratzeko. ABEE edo talde bakoitzak egiaztatu beharko du baduela jarduteko gaitasuna eta badituela kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala (baldintza-agiri honetan eskatzen direnak).

Baldintza horiek egiaztatzeko, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du entitate lizitatuak. Baldintza-agiri honen I. eranskinean dago adierazpen horren eredua: Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).

## **7. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA**

---

Entitate lizitatuak adierazi beharko du baduela kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa kontratua egikaritzeko, alegia, entitateak egoera ekonomiko eta finantzario egokia duela, sor litezkeen mota horretako gorabeherengatik kontratuaren egikaritzea arriskuan ez jartzeko adinakoa.

Egiaztapen hori egiteko, adierazpen bat egin beharko da, non adierazi behar baita azken hiru ekitaldietan (2023-2024-2025) izandako negozio-bolumen metatua kontratuaren xedearen antzeko jardueretan. Negozio-bolumen horrek kontratu honen urteko aurrekontuaren berdina edo handiagoa izan beharko du (120.000 euro, BEZa barne). Adierazpen hori EKAB dokumentuan sartu beharko da. Kontratuaren indarraldi osoan eutsi beharko zaio eskatutako kaudimen ekonomikoari.

Baterako parte-hartzeen kasuan, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko, batera aurkezten diren enpresetako edozeinen datuak aurkezten ahalko dira, edo, bestela, parte hartzen duten enpresa guztien datu metatuak.

## **8. KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA**

---

Kontratuaren adjudikaziodun izateko proposamena jasotzen duen pertsonak edo entitateak egiaztatu beharko du kontratua behar bezala egikaritzeko gaitasun teknikoa edo profesionala duela.

Kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Azken hiru urteetan (2023-2024-2025) emandako antzeko zerbitzu baten egiaztapena. Zerbitzu horren helburu nagusiak izan behar du haur eta gazteei zuzendutako lehiaketak, kultur jardunaldiak, hezkuntza-ekitaldiak edo jaialdiak antolatzea. Emandako zerbitzuaren zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua) zehaztu beharko dira, eta, halaber, jarduera sustatu duen erakunde edo bezeroak egiaztatutako gogobetetasun-txosten bat aurkeztu beharko da, zeinaren bidez emandako zerbitzua egokia izan dela bermatuko baita. Zerbitzuak 35.000 eurokoa izan behar du, gutxienez.
- Proiektua zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen den pertsonaren titulu akademikoak (unibertsitate-titulua), eta gutxienez 2 urteko esperientzia profesionala egiaztatua antzeko jarduerak koordinatzeko eta antolatzeko lanetan.

- Ikasleekin harremanetan egonen diren guztien C1 mailako euskara-ezagutza egiaztatzen duten tituluak.

Kaudimena egiaztatzeko dokumentuak entitate adjudikaziodunak bakarrik aurkeztu beharko ditu. Hasierako fasean, nahikoa izanen da EKAB dokumentuko adierazpenak aurkeztea. Adierazpen hori A gutun-azalean jaso beharko da (Entitate lizitatzaillearen gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko dokumentazioa), bat etorri baldintza-agiri honetako I. eranskinarekin.

## **9. ESKAINTZEN AURKEZPENA**

---

### **9.1. Tokia eta epea**

Proposamenak Lizitazio Elektronikoaren Nafarroako Plataformaren (PLENA) bidez soilik aurkeztu ahalko dira. Era berean, plataforma horren bidez eginen dira interesdunekin egin beharreko komunikazio guztiak eta izapideetako gainerako jarduketak.

Kontratazioaren Atarian argitaratutako lizitazio-iragarkiaren bidez jotzen ahalko da PLENARA. Handik, interesa duen edonork deskargatzen ahalko du mahaigaineko aplikazioa, eta, hala, aukera izanen du eskaintzak prestatu eta aurkezteko, zifratze-mekanismo estandarrak eta gutun-azal digitala erabiliz, eta, halaber, gordailu seguruan gordetzen ahalko ditu.

Deskargatu ondotik, PLENAREN bitartez beste edozein lizitazio egiteko erabili ahal izanen da aplikazio hori.

Eskaintzak lizitatzaillearen mahaigainean zifratzen dira, zifratze-mekanismo estandarrak erabiliz, eta aurkeztu ondoren, gordailu seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea lizitazio-iragarkian zehaztuko da. Epe hori 32 egunekoa izanen da, gutxienez, lizitazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidaltzen denetik aurrera.

Epez kanpo aurkeztutako eskaintza baten aztarna elektronikoa jasotzen bada, baliozkotu eginen da. Aztarna hori bat badator, eta eskaintza luzatutako 24 orduko epearen barruan aurkeztu bada, eskaintza baliozkotzat jo, eta ireki eginen da.

Aitzitik, aztarnak bat egiten ez badu, edo eskaintza luzatutako 24 orduko epeetik kanpo jaso bada, baztertu eginen da eskaintza, eta ez da irekiko haren edukia, inoiz ere.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta entitate lizitatzailleak argudiatu badu arazo teknikoak izan dituela eskaintza aurkeztean, egiaztatu eginen da eskaintza aurkezteko unean plataforman arazo teknikorik egon zen ala ez. Aurkeztutako eskaintza onartuko da, soilik plataformaren

funtzionamendu arruntean gorabehera teknikoren bat gertatu bazen. Lizitatzaillearen ezagutza ezak edo plataformarekin ikustekorik ez duten arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza denboraz kanpo aurkeztea, eta, ondorioz, baztertu eginen dira eskaintza horiek. Berdin gertatuko da eskaintza zehazturiko bidea ez den beste bide batetik aurkeztuz gero.

## **9.2. Proposamenen forma eta edukia**

Eskaintzak aurkeztean, PLENak eskatzen dituen izapide eta inprimaki guztiak bete beharko dituzte entitate lizitatzailleak.

Eskaintzak aurkezten edo/eta sinatzen dituzten pertsona fisikoak behar bezala identifikaturik egon behar dira. Ordezari gisa sinatzen dutenen kasuan, PLENan jarduteko eta aritzeko baimena emanen dien ahalorde aski izan beharko dute.

Sinadura elektronikoa aitortuarekin sinatuko da eskaintza. Sinadura elektronikoa horrek ziurtapen-zerbitzuen emaile batek baliozkotasunez emana izan behar du, eta dokumentuaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatu behar ditu, kontuan izanik Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazio publiko elektronikoaari buruzko gainerako xedapenak.

Eskaintza elektronikoa eranstean banakako fitxategi bakoitzak 50 MB-ko tamaina izan behar du, gehienez ere. Eskaintzaren tamaina osoa, dokumentu guztiak barne, 100 MB-koa izan behar du, gehienez ere. Plataformak ez du mugarik jartzen eskaintza bati eranstean ahal zaion fitxategi kopuruan.

Aurkezpenarekin batera aurkezten diren dokumentuetarako, normalki erabili ohi diren formatuak onartuko ditu PLENak (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip). Bestelako formatuak dituzten fitxategiak erantsi nahi izanez gero, fitxategi konprimatu batean (ZIP) bilduz eranstean ahalgo dira.

Baldin eta desadostasunak badaude plataformako formularioetan txertatutako balio objektiboen eta irizpide bakoitza oinarritzen duten dokumentu erantsien artean, lehentasuna izan behar du entitate lizitatzailleak elektronikoki izenpetutako dokumentu eta eranskinek.

Eskaintza nork igortzen duen alde batera utzita, eskaintza elektronikoa sinatu beharko du entitate lizitatzaillearen izenean eta hura ordezkatuz kontratatzeke ahalorde askietsia duenak. Beraz, bi aukera daude:

- Edo eskaintza osoa sinatzen da elektronikoki entitatearen ahaldunaren edo ahaldunen ziurtagiriarekin. Kasu horretan, baliozkoa izanen litzateke aplikazioaren formularioetan adierazitako informazio ekonomikoa.
- Edo eskaintza legezko pertsona baliozko baten ziurtagiriarekin sinatzen da (pertsona fisiko edo juridiko ordezkariaren baliozko ziurtagiria), eta ahaldunak edo ahaldunek sinatutako dokumentu elektronikoak eransten dira.

Proposamen bat aurkezteak esan nahi du pertsona edo entitate lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetako klausulak, eta, halaber, erantzukizunpeko adierazpena egiten duela, adieraziz aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta lanen kontrataziorako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Entitate lizitatzailleak eskaintza ixten duenean, haren edukiaren aztarna bat –laburpen kriptografiko bat– sortuko da, eskaintza aurkeztu izana egiaztatzeko. Entitate lizitatzailleak arazorik badu PLENAn bere eskaintza aurkezteko tenorean, eta aztarna elektronikoa –laburpen kriptografikoa– eskaintzak aurkezteko epemugaren barnean bidali badio kontratazio-organoari (Kontratazio Atarian ezarritako harremanetarako posta elektronikora), kasu horretan, epea 24 orduz luzatuko da eskaintza osoa PLENaren bidez jasotzeko eta aurkezpena osatutzat jotzeko. Baldintza horiek bete ezean, ez da onartuko lizitazioaren iragarkian zehazturiko epetik kanpo jasotzen den parte hartzeko eskaerarik.

Eskaintza aurkezteko erabiltzen den ekipoak ez du izan behar 5 minututik gorako desfaserik Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren orduarekin.

Nafarroako Gobernuko zerbitzariak denbora unibertsal koordinatua (UTC) erabiltzen dute erreferentzia gisa, hau da, erreferentziako nazioarteko laborategien denbora-eskala unibertsala, gehienez gorabehera honekin: +/- 1 segundo. Hori izanen da, hortaz, zerbitzu elektronikoen ordu ofiziala.

- Lehen mailako iturria: [hora.roa.es](http://hora.roa.es) (Armadaren Errege Institutua eta Behatokiak bi zerbitzari ditu Cadizeko San Fernandon, eta hirugarren bat Madrilen).
- Bigarren mailako ordu-iturriak:
  - [canon.inria.fr](http://canon.inria.fr), INRIA, Paris
  - [i2t15.i2t.ehu.es](http://i2t15.i2t.ehu.es), EHU

Lizitazio elektronikoen plataforman eskaintza honetarako zehazturiko egituraren arabera aurkeztu beharko dira lizitatzailleen proposamenak. Proposamenak hiru gutun-azal izan beharko ditu, honela identifikatuta:

- A gutun-azala: dokumentazio orokorra.

- B gutun-azala: balio-judizioen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.
- C gutun-azala: formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.

Prozeduratik automatikoki baztertuko dira, baldintza-agirian ezarritakoari jarraikiz, A gutun-azalean B eta/edo C gutun-azalean sartu beharreko dokumentazioa sartzen duten proposamenak.

Gutun-azal bakoitzean, honako dokumentu hauei dagozkien artxibo elektronikoak sartu beharko dira:

### **A gutun-azala: dokumentazio orokorra**

Entitate lizitatuak honako dokumentazio hau aurkeztu behar dute A gutun-azalean ("Dokumentazio orokorra"):

- Lizitazioa aurkezten den pertsona bakoitzeko –ABEE gisa nahiz lizitatu-talde gisa aurkezten direnak–, EKAB (Europako Kontratazio Agiri Bakarra) bat aurkeztu beharko da.
- Halaber, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du talde batean edo aldi baterako enpresa-elkarte batean aurkezten den pertsona bakoitzak. Gainera, bakoitzak dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko du. Dokumentu horretan, alderdi hauek agertu beharko dira: batetik, kide bakoitzak enpresa-elkartean edo taldean parte hartzeko borondatea duela; bigarrenik, kide bakoitzari dagokion partaidetza-ehunekoa; eta, azkenik, ordezkari edo ahaldu bakarra izendatu beharko da, kontratutik sortutako eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituen, hura azkendu arte. Enpresa-elkartean dauden enpresek eta ahalduak sinatu beharko dute dokumentu hori.

### **B gutun-azala: irizpide kualitatibo bidez baloratu beharreko dokumentazioa**

Gutun-azal honetan, entitate lizitatuak aurkezten duen dokumentazio tekniko guztia sartu behar da. Irizpide kualitatiboak baloratzeko eta puntuatzeko erabiliko da dokumentazio hori, eta, beraz, hartan azaldu beharko da zer prestazio egingen diren kontratua egoki egikaritzeko.

Zehazki, dokumentu hauek sartu behar dira gutun-azal horretan:

- Proposamen teknikoa. Proposamen horretan, 12.1.a atalean zehaztutako informazioa jaso beharko da, gutxienez.
- Balio erantsiaren proposamena. Proposamen horretan, jaialdi-jardunaldietarako proposatutako programazioaren balorazioa egingen da (12.1.b atalean jasotzen da programazioa).

### **C gutun-azala: formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa**

C gutun-azalean jasoko dira eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebalua daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa. Zehazki, dokumentu hauek sartu behar dira gutun-azal horretan:

- Irizpide sozialei buruzko dokumentazioa.
- Proposamen ekonomikoa, III. ERANSKINAREN arabera.

Proposamen ekonomikoa (III. eranskina) behar bezala sinatu beharko du lizitatzailerak (pertsonek, entitateek nahiz ordezkariek), eta ezin izanen du gaintu kontratu honetarako ezarritako gehieneko prezioa. Prezioak eurotan emanen dira, eta ulertuko da bertan barne hartzen direla zerga eta tasa aplikagarri guztiak, bai eta kontratua egikaritzean sortzen den zeinahi gastu ere.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazioduna gai izan dadin, gutxienez, dagokion sektoreko hitzarmenaren aplikaziotik ondorioztatutako kostuari aurre egiteko, eta finkaturiko soldaten orduko prezioak ezin izanen dira apalagoak izan, inolaz ere, hitzarmeneko orduko prezioak baino –hitzarmeneko orduko prezioaren hobekuntzak eta gizarte-segurantzako kostuak gehituta–.

Eskaintako prezioa kalkulatzeko, kontuan hartu beharko dira jarduera egitean sortuko diren ordainsari eta egiturazko kostu guztiak; besteak beste, honako hauek:

- Langileen ordainsariak. Gutxienez, langileen soldata-baldintzak bete beharko dira (Nafarroako Bulego eta Langileen Sektoreko Hitzarmen Kolektiboan jasotzen direnak edo kontratuaren xedearen arabera aplikatu beharreko beste edozein hitzarmenetan jasotzen direnak).
- Egiturazko gastuak, kontratu honen xedearekin zuzenki loturik daudenak.

Oharra: Prezioa **soilik C gutun-azalean sartu beharko da**, eta hura ireki arte, isilpean gorde beharko da. Arau hori ez bada betetzen, prozeduratik baztertuko da entitate lizitatzailerak.

## 10. KONTRATAZIO-MAHAIA

---

Kontratazio-mahai bat eratuko da pertsona edo entitate lizitatzailerak onartzeko, eskaintzak baloratzeko eta adjudikazio-proposamena egiteko, Kontratuei buruzko 2/2018 Foru Legearen 50. artikuluaaren arabera. Honako hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Paula Kasares Corrales, Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria.
  - Ordezkoa: Ander Irizar Apaolaza, Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria.

- Idazkaria: Aitziber Gutiérrez Díaz, APT (arlotu juridikoa), Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari atxikia.
  - Ordezkoa: Pilar Zapico Revuelta, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren Idazkaritza Tekniko Nagusiko Araubide Juridikoaren Ataleko burua.
- Epaimahaikidea: Marta Chamorro Armendariz, Euskararen Azterlan eta Plangintza Estrategikoen Ataleko burua.
  - Ordezkoa: Josu Uztarroz, Euskara Sustatzeko Ataleko burua.
- Epaimahaikidea: Eider Castañeda, Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko erdi mailako euskara-teknikaria.
  - Ordezkoa: Itziar Donezar, Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko erdi mailako euskara-teknikaria.
- Kontu-hartzailea: Miren Rico Nogales, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontu-hartzaile eskuordetua.
  - Ordezkoa: Laiene Crespo Arocena, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontu-hartzaile eskuordetua.

Kontratazio-mahaiaren jardura eta funtzioak Kontratuei buruzko Foru Legeak 50. eta 51. artikuluen arabera izanen dira. Gainerako alderdiak (deialdiak, saioak, quoruma, mahaikideen eginkizunak, aktak, abstentzioa, errekusazioa eta abar), berriz, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak xedatzen duenaren arabera arautuko dira. Proposamen bat egin baino lehenago, kontratazio-mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eskatzen ahal ditu, baldin eta kontratuaren xedearekin zerikusia badute.

## **11. DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA**

---

Eskaintzak aurkezteko epea amaiturik, unitate kudeatzaileak, barne-egintza bidez, A gutun-azala irekiko du, eta egiaztatuko du eskatutako administrazio-dokumentazioa aurkeztu dela.

Aurkeztutako dokumentazioa ez bada osoa edota zalantzaren bat sortzen badu, PLENako jakinarazpen-moduluaren bidez eskatuko zaio eskaintza aurkeztu duenari dokumentazio hori osatzeko edo akatsak zuzentzeko, gutxienez bost egun naturaleko epean, errekerimendua jakinarazten den egunetik hasita. Izapide horretan aurkeztutako dokumentazioaren bidez, ez dira aldatu behar, inolaz ere, eskaintzaren baldintzak. Baldin eta, zuzenketa-epea iraganik, eskatutako informazioa osatu ez bada, lizitatzailerak prozeduratik kanpo utziko da.

Dokumentazio administratiboa aurkeztu dela egiaztatu ondoren, unitate kudeatzaileak, barne-egintza bidez, B gutun-azala irekiko du (“Irizpide kualitatiboen bidez baloratu beharreko dokumentazioa”), eta baloratu egingen du, adierazitako adjudikazio-irizpideen arabera.

Eskaintza kualitatiboen balorazioa egin ondoren, C gutun-azala irekiko du –formulen bidez kuantifika daitezkeen eskaintzei buruzkoa–, barne-egintza bidez. Kuantifika daitezkeen irizpideei buruz kontratazio-mahaiak egindako balorazio teknikoaren emaitza lizitazio-plataforman jasoko da.

Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideetarako dokumentazioa ireki aurretik, balio-judizio bidez baloratu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa ireki eta balioetsiko da, kasu guztietan.

## **12. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK**

---

Kontratua adjudikatzeko, aintzat hartuko dira, batetik, kostuaren eta efikaziaren arteko erlazioa (prezioa), eta, bestetik, irizpide kualitatiboak, kalitate/prezio erlazio onena duen eskaintza hautatzeko helburuarekin. Hala, adjudikaziodun izanen da osotarako puntu gehien lortzen dituen eskaintza, 100 punturen gainean eta baldintza-agiri honetan ezarritako adjudikatzeko irizpideak aplikatuta.

### **12.1. Irizpide kualitatiboak: 50 puntu, gehienez**

a) **Proposamen teknikoa.** Honako informazio hau jaso behar du, gutxienez:

- Xede-taldearen abiapuntuaren diagnostikoa. Diagnostiko horretan, modu oinarrituan aztertu beharko dira honako alderdi hauek: xede-taldearen egungo egoera IKTen eta euskarazko kultura digitalaren erabileraren arloan, xede-taldeak arlo horretan dituen premiak eta gabeziak eta eduki digitalak euskaraz kontsumitu eta sortzea baldintzatzen duten faktoreak. Diagnostikoa jaso ahal izanen dira AMIA analisiak edo proposatutako esku-hartzearen abiapuntua argiki deskribatzen duten bestelako metodologiak.

- Zerbitzuaren helburu operatiboak, zeintzuk koherenteak izan behar baitira jaialdi-jardunaldiak diseinatu, antolatu, aurrera eraman eta ebaluatzeko funtzioekin.

- Zereginen deskribapen zehatza. Kronograma errealista bat egin beharko da, zerbitzuaren plangintza osoa jasoko duena.

- Zer komunikazio- eta koordinazio-eredu aplikatuko den erakunde kontratugilearekin, parte hartzen duten ikastetxeekin eta hezitzaile-taldearekin (komunikazio-kanalak, erantzuteko denborak eta erantzukizunak zehaztuta)

- Kudeaketa logistikorako plana. Plan horretan jaso beharko da ikasleen joan-etorriak nola antolatuko diren –beharrezko denean–, eta, halaber, zer prozedura aplikatuko diren ordutegiak, ibilbideak, iritsierak eta irteerak koordinatzeko, eta, hala, jardunaldietarako sarbidea segurua eta arina izan dadila bermatu ahal izateko.

- Zerbitzua kudeatzeko, koordinatzeko eta gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak. Horien profil profesionalak eta zenbatetsitako dedikazioa ere adierazi beharko da.

- Zerbitzua ebaluatzeko sistema. Zehatz-mehatz deskribatu beharko da zer metodologia proposatzen den jaialdi-jardunaldiek epe laburrean izanen duten eragina eta emaitzak eta tailerren kalitatea neurtzeko. Ebaluazio-sistemak honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Proiektuaren helburuekin lotutako adierazle espezifikoak eta neurgarriak (adibidez, euskarazko kultura digitalarekiko interesa, euskarak eremu digitaleko hizkuntza gisa duen erabilgarritasunaren gaineko pertzepzioa, euskarazko eduki digitalak kontsumitzeko edo sortzeko motibazioa, tailerren eskaintzarekiko gogobetetze-maila, etab.).

- Informazioa biltzeko tresnak eta teknikak; besteak beste, galdetegiak (aurrez edo ondoren egindakoak), gogobetetze-inkestak, behaketa egituratua, parte-hartzearen analisisa edo esku-hartzearen berehalako eragina baloratzeko aukera ematen duen beste edozein tresna.

- Lortutako datuak aztertzeko eta tratatzeko prozedurak, datuon fidagarritasuna eta konparagarritasuna bermatzeko.

- Helburuen betetze-maila baloratzeko irizpideak, eta erakunde kontratugileari emaitzak aurkezteko modua.

Ebaluazio-sistemak aukera eman behar du honako hau argi neurtzeko: jaialdi-jardunaldiek nolako eragina duten ikasleengan, epe laburrean (1-2 aste jaialdi-jardunaldiak egiten direnetik) eta ertainean (6 hilabete jaialdi-jardunaldiak egiten direnetik), bereziki parte-hartzaileek IKTekin eta euskarazko kultura digitalarekin duten harremanari dagokionez.

Proposamen teknikoari 35 puntu emanen zaizkio, gehienez. Gutxienerako zazpi eduki tekniko ebaluatuko dira. Eduki horietako bakoitza baloratzeko, eskala hau aplikatuko da:

- ❖ 0 maila (0 puntu): proposamenak ez du erakusten gaitasunik erakunde kontratugilearen beharrei erantzuteko edo ez ditu oinarritzko baldintzak betetzen.
- ❖ 1. maila: oinarritzkoa (1 puntu). Proposamenak gaitasun urria erakusten du erakunde kontratugilearen beharrei erantzuteko, eta, beraz, ez dago argi zehaztapen teknikoetan eskatutakoari egoki erantzuteko gaitasuna duen.

- ❖ 2. maila: ertaina (2 puntu). Proposamenak gaitasun nahikoa erakusten du erakunde kontratugilearen beharrei erantzuteko, baina ozta-ozta betetzen du zehaztapen teknikoetan eskatutakoa.
- ❖ 3. maila: ona (3 puntu). Proposamenak gaitasun egokia erakusten du erakunde kontratugilearen beharrei eta zehaztapen teknikoetan eskatutakoari erantzuteko.
- ❖ 4. maila: oso ona (4 puntu). Proposamenak gaitasun handia erakusten du erakunde kontratugilearen beharrei eta zehaztapen teknikoetan eskatutakoari erantzuteko.

**Gutxieneko eduki teknikoak, haztapen matematikorako formula eta esleitutako garrantzia erlatiboak**

Eduki tekniko bakoitzeko puntuak lortzeko, puntuazio osoaren gaineko (35 puntu) haztapena egingen da:

$$i \text{ irizpidearen puntuak} = (\text{mailaren balorazioa [0-4]} / 4.00) * (\text{irizpidearen garrantzia erlatiboaren \%} / 100) * 35$$

Gutxieneko edukiak	Baloratu beharreko alderdiak	Garrantzia erlatiboa eta gehieneko puntuazio baliokidea
1. Xedetaldearen abiapuntuaren diagnostikoa	Diagnostikoaren kalitatea, sakontasuna eta oinarriak; ikasleek IKTen eta kultura digitalaren euskarazko erabileraren inguruan duten egoeraren gaineko ezagutza; premiak, gabeziak, aukerak eta oztopoak identifikatzea; analisirako metodologiak erabiltzea; proposamen globalarekiko koherentzia.	% 25 (8,75 puntu, gehienez)
2. Zerbitzuaren helburu operatiboak	Helburuen argitasuna eta egokitasuna; diagnostikoarekin eta proiektuaren helburuekin bat etortzea; helburu neurgarriak eta lorgarriak formulatzea.	% 10 (3,5 puntu, gehienez)
3. Zerbitzuaren plangintza:	Zereginen deskribapen zehatza eta koherentea; kronogramaren egokitzapena; argitasuna jardueren eta erantzukizunen sekuentziazioan; epeen eta antolaketaren bideragarritasuna.	% 15

zereginak eta kronograma		(5,25 puntu, gehienez)
4. Komunikazio-eta koordinazio-eredua	Erantzuteko bideak, prozedurak eta denborak definitzea; koordinazioa argia erakunde kontratugilearekin, ikastetxeekin eta hezitzaileekin; komunikazio arina eta eraginkorra bermatzeko gaitasuna.	% 10 (3,5 puntu, gehienez)
5. Kudeaketa logistikorako plana (ikasleen garraioa barne)	Plan logistikoaren kalitatea eta xehetasun-maila; joan-etorrien antolaketa; ordutegi, ibilbide, sarbide, iritsiera eta irteeren koordinazioa; segurtasun arloko eta gorabeherak minimizatzeko neurriak; koherentzia ikasleen guztizko bolumenarekin eta egun bakoitzeko 450 ikasleko mugarekin.	% 10 (3,5 puntu, gehienez)
6. Giza baliabideak eta baliabide materialak	Profil profesionalen egokitasuna; esperientzia eta gaitasunak antzeko proiektuetan; zenbatetsitako dedikazioa; baliabide materialen nahikotasuna eta kalitatea.	% 20 (7 puntu, gehienez)
7. Epe laburreko eragina ebaluatzeko sistema	Metodologiaren argitasuna eta sendotasuna; adierazle espezifikoak eta neurgarriak; informazioa biltzeko tresnen egokitasuna; emaitzak aztertzeko eta aurkezteko prozedurak; jardunaldiek ikasleengan duten berehalako eragina neurtzeko gaitasuna.	% 10 (3,5 puntu, gehienez)

Automatikoki baztertuak izanen dira atal honetan (12.1.a) ezarritako puntuetatik 15era iristen ez diren proposamenak. Halaber, baztertu egingen dira desegokitzat jotzen diren eskaintzak edo kontratu hau zuzen egikaritzeko dela bermatzen ez dutenak.

**b) Jaialdi-jardunaldien programa.**

Jaialdi-jardunaldietarako proposatutako programazioa baloratuko da. Positiboki baloratuko da proposatutako hitzaldiak eta ikastaroak askotarikoak, interaktiboak, parte-hartzaileak eta hartzaileentzat interesgarriak izatea. Hau da, jarduera modernoak izan behar dute, kultura digitalaren arloko azken joerekin lotuak.

Era berean, proposatutako programazioaren bidez, sustatu beharko dira ikasleen estimua euskararekiko eta euskararen erabilera kultura digitalean, ikusgarritasun berezia emanaz euskarazko edukien sortzaileei eta haien parte-hartzea proposatuz.

Eskaintako ikastaro eta hitzaldiez gain, beste jarduera osagarri batzuk ere proposatu ahal izanen dira, bai eta zuzeneko podcastak, musika-kontzertuak edo filmak/bideoak proiektatzea ere.

**15 puntu, gehienez**

## 12.2. Formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideak: gehienez 50 puntu.

### a) Irizpide sozialak

- Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea:
  - % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeagatik (kontratatuta egon behar dute, gutxienez, iragarkia Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 6 hilabeteetan):
    - Pertsona bat: 2,5 puntu.
    - Bat baino gehiago: 5 puntu.
- Genero-berdintasunaren arloko neurriak:
  - Zerbitzua emanen duen taldeak genero-berdintasunaren arloan duen prestakuntza egiaztatuz gero, 2,5 puntu egiaztagiriko bakoitzeko.
  - Kontratua egikaritzeko ardura-postu jakin batzuetarako emakumeak izendatuz gero, 2,5 puntu izendapen bakoitzeko.

**10 puntu, gehienez**

### b) Eskaintza ekonomikoa

Eskaintza ekonomikoa 2 kopuru izanen ditu, 5. klausulan xedatutakoaren arabera.

Bi kopuru horiek formula honen arabera baloratuko dira:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{(kontratuaren gehieneko aurrekontua – entitate lizitatzaileraren proposamen ekonomikoa) BEZik gabe}}{\text{(kontratuaren gehieneko aurrekontua – Onartutako eskaintza baxuena), BEZik gabe}} \text{ Ataleko gehieneko puntuazioa (35 edo 5)}$$

Eskaintzarik merkeenak ataleko gehieneko puntuazioa jasoko du, eta gainerako eskaintzek formula hori aplikatuta lortutako puntuazioa jasoko dute.

"Eskaintzarik baxuena" izanen da onartutako eskaintzarik baxuena, nahiz eta eskaintza baxuegia izan.

A ataleko eskaintza ekonomikoetako bat lizitazioaren gehieneko aurrekontuaren berdina bada, 0 puntu jasoko ditu. Halaber, 0 puntu emanen zaizkio B ataleko eskaintzari, baldin eta autobus bakoitzeko prezio unitarioaren berdina bada.

**40 puntu, gehienez**

### **12.3. Eskaintza baxuegiak**

Eskaintza bat baxuegitzat joko da, baldin eta aurkeztutako eskaintzen batez bestekoa baino % 15 baxuagoa bada (BEZik gabe). Halakoetan, kontratazio-organoak, jakinaren gainean jarriko ditu ukitutako lizitatzaille guztiak, bost eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten. Lizitatzailleen alegazioak ikusi eta aholku tekniko egokia jaso ondoren, ebazpen arrazoitua emanen da eskaintzaren onarpenari buruz.

### **12.4. Berdinketak hausteko irizpideak**

Bi entitate lizitatzaileraren edo gehiagoren arteko berdinketa gertatuz gero, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 99. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Beraz, berdinketa gertatzen bada, genero-berdintasunaren arloko jardunbide egokiak egin dituela frogatzen duen entitatearen alde ebatziko da.

Berdinketak bere horretan jarraituz gero, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten langile finkoen ehuneko handiena duen entitatearen alde eginen da, betiere entitatean desgaitasuna duten langileak plantillaren % 3 badira, gutxienez, kaudimena frogatzen den unean. Kasua hori ez bada, edo oraindik berdinketa badago, behin-behineko langileen ehuneko txikiena duen entitatearen alde eginen da, betiere ehuneko hori % 10etik gorakoa ez bada. Hala eta guztiz ere berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.

Beraz, berdinketa gertatuz gero, unitate kudeatzaileak behar diren dokumentuak eskatuko dizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost egun naturaleko epea emanen die dokumentu horiek aurkezteko.

## **13. ADJUDIKAZIODUN IZATEKO PROPOSATUTAKO ENTITATE LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Behin adjudikazioaren proposamena modu elektronikoa jakinarazita, proposatutako lizitatzailleak/lizitatzailleek 7 egun naturaleko epean dokumentazio hau aukeztu beharko dute lizitazio-plataformaren bidez:

a) Nortasuna frogatzen duen dokumentua:

- Lizitazailea pertsona fisikoa bada, nortasun-agiri nazionala edo, araudiaren arabera, hura ordezkatzeko duen dokumentua.
- Lizitazailea pertsona juridikoa bada, pertsona juridikoa eratzeko eta aldatzeko –kasua bada– eskritura aurkeztu beharko da, dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta.
- Proposamenak beste pertsona baten izenean aurkezten edo sinatzen dituztenek honako hauek aurkeztu beharko dituzte: ahalorde askietsia eta ahaldunaren nortasun-agiri nazionala. Lizitazailea pertsona juridikoa bada, ahalordea behar bezala inskribaturik egon beharko da dagokion erregistroan, baldin eta betebeharrak hori nahitaezkoa bada, aplikatutako merkataritza-legeriaren arabera.
- Nafarroako Foru Komunitateko Lizitazaileen Borondatezko Erregistroan (apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bidez sortua) inskribatuta dauden enpresen kasuan, lizitazaileak ez du bere nortasunari edo ordezkariari buruzko dokumenturik aurkeztu behar, baldin eta honako hauek aurkezten baditu: batetik, erregistro horretan inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia –modu elektronikoa Internet bidez eskuratua– eta, bestetik, inskripzioa indarrean egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

b) Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere hiru hilabete lehenago egina, egiaztatzen duena adjudikaziodunak egunean dituela Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zerga-betebeharrak.

c) Adjudikaziodunak Nafarroatik kanpo ordaintzen baditu zergak, aurreko puntuan aipatzen denaren antzeko ziurtagiria, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo foru-ogasunek egina.

d) Adjudikaziodunak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneraturik dituela frogatzen duen dokumentua, gehienez ere proposamenak aurkezteko epea amaitu baino sei hilabete lehenago egina.

e) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzen duen dokumentazioa, baldintza-agiri honen 7. klausulan adierazitakoa.

f) Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa, baldintza-agiri honen 8. klausulan adierazitakoa.

g) Kasua bada, irizpide sozialetan jasotako pertsonak kontratatu direla frogatzen duten kontratuak.

Dokumentazio hori adierazitako epean aurkezten ez bada, eta horren ondorioz kontratua ezin bada formalizatu, kontratua suntsiarazi ahalko da, interesdunari entzun ondoren. Kasu horretan,

interesdunak kontratuaren balio zenbatetsiaren % 5eko penalizazioa ordaindu beharko du, bai eta galeren kalte-ordain osagarria ere, ehuneko horren gainera eragindako kalte eta galerengatik.

#### **14. KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA**

---

Kontratazio-mahaiak adjudikazio-proposamena igorriko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileari, kontratua adjudikatzeko ebazpena eman dezan. Proposamen horretan jasoko da nola balioetsi den proposamen bakoitza, zehazturiko irizpideak aplikatuz. Horrez gain, proposamen onargarri bat egin duten lizitatzaileren lehentasun-hurrenkera jasoko da, bakoitzaren puntuazioa adierazita, eta, hala badagokio, positiboki baloratu diren ezaugarriak zehaztuta.

Adjudikazioa, zeina egoki arrazoitu beharko baita, telematikoki jakinaraziko zaie lizitatzailere guztiei, eta haren efikazia etenda geldituko da 10 egun naturalez –adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik kontatzen hasita–, eskaintza bakarra aurkezten den kasuetan izan ezik.

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatuko da, adjudikazioaren etenaldia bukatu ondoko 5 egun naturaleko epean.

#### **15. KONTRATUA EGIKARITZEA**

---

- Kontratua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren gainbegiratze, ikuskatze eta kontrolaren pean egikarituko da.  
Baldintza-agiri honen II. ZATIAN jasotako zehaztapen teknikoak zehatz-mehatz betez egikaritu behar dira lanak, eta, halaber, langile arduradunek idatziz emandako jarraibideak betez. Kontratatik une oro men egin beharko die indarreko legeriak administrazio kontratugileari kontratua interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko ematen dizkion ahalmenei.
- Adjudikazioduna izanen da zerbitzua emateko hautaturiko langileen arduradun bakarra, eta, beraz, ez dute kontratu- edo lan-harremanik izanen, inola ere, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin.  
Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak ahalmena izanen du entitate lizitatzailere eskatzeko ordezkari ditzala zerbitzua ematen duten langileak, non eta, bere iritziz, ez diren ari zerbitzua behar bezainbateko kalitate-mailarekin ematen.
- Ikasleekin harremanetan egonen diren langile kontratudun guztiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparruko C1 mailako euskara-titulua edo baliokidea izan beharko dute.

- Ikasleekin harremanetan egonen diren langile kontratudun guztiek Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute.  
Entitate lizitatzalea beharturik dago kontratu hau egoki betetzeko beharrezkoak diren ekipoa, baliabide lagungarriak, bulegoa, aretoak eta langileak jartzera.
- Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak ez du izanen inolako harreman funtzionalik, organikorik edo laboralik langileekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez bukatu ondoren.
- Entitate kontratistak Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarrilaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak ezarritako betekizunak bete beharko ditu.  
Halaber, Nafarroako Gobernuaren ikurra agertu behar da kontratua egikaritzearen ondorioz ekoitzi edo zabalduko zeinahi dokumentazio, iragarki, dibulgazio-material edo informazio-materialetan, eta, halaber, adierazi beharko da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua dela organismo kontratugilea.

## **16. LANEN ORDAINKETA**

---

BBaldintza-agiri honetako lanak behar bezala egin ondoren eta dagozkion fakturak aurkeztu ondoren, Nafarroako Gobernuak ordainketa egingen du, betiere Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoak adierazten badu faktura horiekin ados dagoela.

Ordainketa bakarra egingen da:

- 2026an egindako lanen ordainketa, 2026ko –edo, kontratua luzatuz gero, dagozkion urteko–abenduaren 16a baino lehen, dagozkion memoria eta faktura aurkeztu ondoren. Memoriaren edukia baldintza-agiri honen II. ZATIAN ezarritakoa izanen da.

Fakturan, honako hau adierazi beharko da:

- Kontzeptu orokorra: "Sarean Euskaraz + dagozkion urtea".
- Azpikontzeptuak, benetan egindako gastuen zenbatekoak adierazita, modu xehatuan:
  - Eremuaren alokairua.
  - Garraioa (benetan erabilitako autobusen kopurua fakturatuko da soilik, kontratatutako prezioaren arabera).
  - Jaialdi-jardunaldiak diseinatzea, kudeatzea eta aurrera eramatea.

## **17. ENTITATE ADJUDIKAZIODUNAK ORDAINDU BEHARREKO GASTUAK**

---

Entitate adjudikaziodunaren konturako gastuak izanen dira –eta haren eskaintzan sartutzat joko dira– kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak; besteak beste, programa aurrera eramateko behar den baliabide pertsonal, material eta pedagogikoen kostua.

## **18. KONTRATUA BETETZEA**

---

Pertsona edo entitate adjudikaziodunak kontratuaren epe barruan egikaritu beharko ditu ekintzak, eta, halaber, kontratazioaren baldintza-agiria eta egindako eskaintzaren edukia bete beharko ditu.

Kontratua bete dela egiaztatuko da, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak oniritzia ematean.

### **18.1. Ez-betetzeak**

Kontratataren ez-betetzetat joko dira honako jokabide hauek:

#### **A. Ez-betetze larriak**

- A.1. Ikastetxeekin harremanetan ez jartzea, gutxienez jaialdi-jardunaldiak baino lau aste lehenago, eta, ondorioz, jaialdi-jardunaldietan parte hartzeko zailtasunak eragitea.
- A.2. Azpikontratatzeko ezarritako baldintzak haustea.
- A.3. Kontratua kudeatzen duen unitateak kontratua egikaritzeko moduari buruz emandako aginduak ez betetzea.
- A.4. Kontratua modu akastunean egikaritzea, hau da, ez etortzea bat adjudikaziodunaren proposamen teknikoan deskribatu, eskaini eta baloratutakoarekin. Hala ere, ez dira ez-betetzetat hartuko kontratataren borondatearekin zerikusirik ez duten ezinbesteko kausa edo arrazioen ondorio zuzena diren ez-betetzeak.
- A.5. Baldintza-agiri honetan eskatutako baliabide pertsonal eta materialak kontratua egikaritzera bideratzeko edo atxikitze konpromisoa ez betetzea.
- A.6. Jardueraren memorian eskatutako informazioa ez jasotzea (jarraipenaren eta ebaluazioaren emaitzak, kontratua egikaritzean sortutako gastuen xehetasuna, jardueretan egindako hobekuntzak, etab.).

#### **C. Ez-betetze oso larriak**

- B.1. Langileekin lotutako lan- edo gizarte-betebeharrak ez betetzea.

- B.2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.
- B.3. Ikasle adingabeen irudiak grabatzea edo haien datu pertsonalak erabiltzea, esanbidezko adostasunik gabe eta eskatutako segurtasun-neurriak bete gabe.
- B.4. Euskara ez izatea komunikazio-hizkuntza egindako dinamiketan edo erabilitako materialetan.
- 

## 18.2. Zigorrak

Kontratataren ez-betetzeak sailkapen honen arabera zigortuko dira:

**A. Ez-betetze larriak:** adjudikatutako zenbatekoaren % 1etik % 5era, kontuan izanik kontratataren arduragabekeria-maila, ez-betetzeak eragindako kalteen munta ekonomikoa edo arau-haustea berriro egin izana.

**B. Ez-betetze oso larriak:** adjudikatutako zenbatekoaren % 5etik % 10era, kontuan izanik kontratataren arduragabekeria-maila, ez-betetzeak eragindako kalteen munta ekonomikoa edo arau-haustea berriro egin izana.

Ez-betetze oso larriengatik ezarritako zigorrak, gehienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20koak izanen dira, baldin eta ez badira betetzen 2/2018 foru-legearen 66. artikuluan kontratua egikaritzeko zehazturiko baldintza bereziak.

Kontratatari ezartzen ahal zaizkion zigorren zenbateko osoa ez da izanen adjudikatutako zenbatekoaren % 20 baino handiagoa. Ez-betetzeak eragindako zigorren zenbatekoa adjudikatutako zenbatekoaren % 10 baino handiagoa izanez gero, abian jarriko da kontratatzeke debekua deklaratzeko prozedura.

## 18.3. Arriskua eta mentura

Kontratua kontratataren arrisku eta menturan egikaritzeko da, eta haren kontura izanen dira, halaber, kontratua egikaritzean izandako galera, matxura edo kalteak, albo batera utzirik horien gaineko aseguruia egin den ala ez.

## 18.4. Kontratua egikaritzeak sorturiko kalte-galerak

Kontratatari egozten ahalko zaizkio kontratua egikaritzearen ondorioz haren jabetzako nahiz hirugarrenen ondasun eta pertsoneri eragindako kalte-galera guztiak.

### **18.5. Kontratatari lan-araudia betetzea**

Kontratua honako xedapen hauen mende egonen da: gizarte-segurantzari eta laneko osasun eta segurtasunari buruzko lege, araudi eta hitzarmen mailako xedapenak eta, bereziki, entitate kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko lan-esparrurik apaleneko azken hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

## **19. AZPIKONTRATAZIOA**

---

Ezin izanen dira azpikontratatu, inola ere, ekitaldiaren diseinua, kudeaketa, zuzendaritza, eta koordinazioa; lan horiek zuzenean egikaritu beharko ditu entitate adjudikaziodunak.

### **Azpikontratatze asmoa adieraztea:**

Entitate lizitatzailleak azpikontratatze asmoa izanez gero, berariaz adierazi beharko du eskaintzan, eta I. eranskina bete (EKAB). Bertan, honako hau adierazi beharko du:

- Azpikontratatu asmo dituen entitate edo enpresen identitatea.
- Azpikontratatu asmo dituen zereginen deskribapen zehatza.

Azpikontratatze asmoa izan bai baina I. eranskina ez aurkeztea eskaintzaren baldintzen ez-betetze gisa hartzen ahalko da.

### **Kontratatariaren erantzukizuna:**

Entitate adjudikaziodunak izanen du, kasu guztietan, Administrazioarekiko erantzukizun erabatekoa kontratua bere osotasunean behar bezala egikaritzeko, edozein direla ere azpikontratatutako alderdiak.

Azpikontratazio orok honako hauek errespetatu beharko ditu:

- Baldintza-agiri honetan ezarritako mugak.
- Kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia.
- Aplikatzekoak diren lan, gizarte eta konfidentzialtasun arloko betebeharrak.

## **20. DATUAK BABESTEA ETA KONFIDENTZIALTASUNA**

---

Entitate adjudikaziodunak bi arau hauek bete behar ditu: 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

## **21. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK**

---

Kontratazio-organoak ebatziko ditu kontratuaren adjudikazioari, interpretazioari, aldaketari eta suntsiarazteari buruz sortzen diren auzigaiak. Kontratazio-organoaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahalko da, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak hartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean –jakinarazpena egin ondoko egunetik kontatzen hasita–, hala xedatzen baitu jurisdikzio hori arautzen duen legeak, 46. artikuluan.

Nolanahi ere, lizitazioan interesa duten enpresek eta profesionalek aukera izanen dute, administrazioarekiko auzi-errekurtsoarean ordeztu, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkezteko. Erreklamazio hori aurkezten ahalko dute kontratazioko baldintza-agiriaren aurka, izapide-egintzen edo behin-betiko egintzen aurka edo adjudikazio-egintzen aurka, baldin eta, egintza horien ondorioz, lizitaziotik kanpo gelditzen badira edo haien igurikimenei kalte egiten bazaie.

Erreklamazio hori Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian aurkezten ahalko da, hamar eguneko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, eta bakar-bakarrik funtsatzen ahalko da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 124. artikuluan aipatzen dituen arrazoietan.

## II. ZATIA – ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

### 22. “SAREAN EUSKARAZ” JAIALDI-JARDUNALDIAK ANTOLATZEKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN AGIRIA

#### 22.1. Kontratuaren xedea

Kontratu honek xede du “Sarean Euskaraz” ekimena –informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) eta kultura digitalaren eremuan gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko jaialdi-jardunaldiak– diseinatu, antolatu eta aurrera eramatea. Izaera ludikoko jardunaldiak izanen dira, ikasleek teknologia berrien bidez gozatzea helburu dutenak.

“Sarean Euskaraz” ekimenaren bidez, IKTak euskaraz erabiltzeko eskura dituzten baliabideak erakutsiko zaizkie ikasleei. Halaber, teknologia berrien bidez, ikasleek euskararekiko duten estimua sustatu nahi da, euskara ikus dezaten eremu ez-formalean ere erabiltzen den hizkuntza moderno eta funtzional gisa.

Sarean Euskaraz jardunaldiak 2017az geroztik egiten dira, Iruñerriko D ereduko DBH 4ko eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzenduta. Kontratazio berrian, **DBHko 4. mailakoei soilik** eskainiko zaizkie, baina, oraingoan, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztietako ikasleei zabalduko zaizkie, hau da, D ereduan –euskarazko murgiltze-ereduan– dauden ikasleei.

2026-2027 ikasturtean, honako ikastetxe hauek betetzen dituzte baldintza horiek:

Altsasu BHI	Etxarri Aranazko ikastola, Sakana	Iparralde DBHI, Iruña
Altsasuko ikastola, Sakana	Argia Ikastola, Fontellas	Jaso Ikastola, Iruña
Agoizko DBHI	Garralda DBHI	Ainariak DBHI, Erronkari
Alaitz BHI, Barañain	Laraintzarko DBHI	Zangozako Ikastola
Toki Ona BHI, Bera	Amazabal BHI, Leitza	Sarriguren BHI
Berriozar DBHI	Otsagabia DBHI	Garces de los Fayos Ikastola, Tafalla
Askatasuna BHI, Burlata	Biurdana BHI, Iruña	Lekaroz BHI
San Fermin Ikastola, Zizur	Eunate BHI, Iruña	Paz de Ziganda Ikastola, Atarrabia

Mendaur DBHI, Doneztebe	Iturrama BHI, Iruña	P. Atarrabia DBHI, Atarrabia
Lizarraldea BHI, Lizarra	Mendillorri BHI, Iruña	Zizur BHI
Lizarra Ikastola	Iñaki Ochoa de Olza DBHI, Iruña	

Kontratua indarrean dagoen bitartean, Nafarroan D ereduko lerro berriak sortzen badira edo DBHko 4. maila ezartzen bada lehendik dauden D ereduko ikastetxeetan, ikastetxe horiek ere gonbidatuko dira.

## **22.2. Jaialdi-jardunaldien diseinua**

Jaialdi-jardunaldiak diseinatu, antolatu eta aurrera eramateko, honako ezaugarri hauek hartu beharko dira kontuan, gutxienez:

- Parte-hartzaileak: parte hartzeko aukera eskainiko zaie, Nafarroako Foru Komunitatean, DBHko 4. mailan D eredua –edo euskarazko murgiltze-eredua – eskaintzen duten ikastetxeei. Horietan, 1.600 eta 1.800 ikasle artean daudela zenbatesten da.
- Iraupena: jaialdi-jardunaldiak hainbat egunez egingen dira. Ikasle bakoitzak egun bakarrean parte hartuko du. Parte hartzen duten ikasleen kopuru osoaren arabera (1.600-1.800 ikasle inguru), behar adina jardunaldi (egun) antolatuko dira, kontuan izanik egunetako batean ere ezin izanen direla elkartu 450 ikasle baino gehiago. Baldintza-agiri honetan aurreikusi ezin diren arrazoiengatik beharrezkoa bada ikastetxeen aukeraketa egitea –jardunaldiak probintzia osoko ikastetxeetara heldu ahal izateko–, hartarako hautaketa-irizpideak eta lehentasunak zehaztuko ditu erakunde kontratugileak eta entitate adjudikaziodunari helaraziko dizkio bete beharreko jarraibideak.
- Lekua: jaialdi-jardunaldiak Baluarte Biltzar Jauregian egin behar dira, lehentasunez; bestela, Nafarroa Arena pabiloian. Nolanahi ere, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak baimendu beharko du azken erabakia.
- Datak: jaialdi-jardunaldiak udazkenean egin beharko dira, eta, ahal dela, azaroaren 20a baino lehen.

Hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuta, ezinbestekoa da jardueren eskaintza gaurkotasunezkoa izatea. Horrez gain, jardunaldiak ludikoak eta jai-girokoak izatea da helburua; alegia, alderdi didaktiko bat izanen badute ere, hobe da ikaskuntza formalaren esparrutik ateratzea. Zeharkako

moduan, euskarazko eduki-sortzaileei ikusgarritasuna ematea izanen da jaialdi-jardunaldien helburua.

Jardunaldien antolaketari eta egituraketari dagokionez, aldi bereko hainbat eremu egonen dira, eta ikasleak batetik bestera joanen dira txandaka, goizean zehar. Eremu guztiek parte-hartze aktiboa sustatu beharko dute. Gutxienez, eremu hauek egon beharko dira:

- Tailer praktikoen eremua. Aldi berean eskainiko dira (6 tailer desberdin, gutxienez). 60 minutu inguru iraunen dute. Hona hemen tailerretarako proposamen batzuk (kontratistak horiek edo beste batzuk aukeratzeko ahal ditu):
  - Podcastak sortzea.
  - Edukiak sortzea.
  - Diseinu digitala (Canva edo antzekoak).
  - Musika sortzea eta nahastea.
- Aurkezpen edo hitzaldi laburren gunea: 20 minutu ingurukoak, eta euskarazko kultura digitalarekin eta IKTekin lotutako proiektuei buruzkoak. Hona hemen hitzaldietarako proposamen batzuk (kontratistak horiek edo beste batzuk aukeratzeko ahal ditu):
  - Adimen artifizialaren etika.
  - *Fake news*ak eta pentsamendu kritikoa.
  - Kontzientziazio digitala.
- Eremu interaktiboa: eremu horretan, ikasleak, aisiaren bidez, euskarara eta kultura digitalera hurbiltzea da helburua, hainbat proposamenen bidez (adibidez, irrati-programa/podcast bat grabatu, formatu interaktiboko kultura orokorreko jokoetan aritu –Kahoot, Trivial, etab.–, eduki-sortzaileak ezagutu edo jaialdi-jardunaldien *challenge* ofizial bat egin).

Parte-hartzaile guztiek hiru eremuetatik igaro beharko dute goizean zehar (baina horrek ez du esan nahi tailer praktikoko guztiak egin behar dituztenik). Lantegi, hitzaldi eta jarduera guztiak euskaraz eginen dira osoki. Positiboki baloratuko da eremu soziolinguistiko desberdinetako ikasleak nahastea.

Kontratu honetan, ez dira sartzen komunikazio-lanak. Hala ere, entitate adjudikaziodunak koordinazio estuan aritu beharko du lan horiek enkargatzen zaizkion komunikazio-agentziarekin.

### **22.3. Entitate adjudikaziodunaren betebeharrak espezifikak**

Kontratu honetako betebeharrak dira zehaztapen teknikoaren atal honetan eta baldintza partikularren agirian ezarritakoa betetzetik ondorioztatzen direnak.

Koordinazio orokorra eta adjudikazioarekin loturiko lanak euskaraz izanen dira; beraz, entitate adjudikaziodunak behar diren baliabideak jarri beharko ditu baldintza hori betetzeko.

### **22.3.1. Koordinazio- eta jarraipen-lanak**

Proiektua behar bezala egikaritzeko, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak beharrezkotzat jotzen dituen koordinazio- eta jarraipen-bilera guztiak egin beharko ditu entitate adjudikaziodunak.

Entitate adjudikaziodunak kronograma xehatua aurkeztu beharko du, non zehaztuko baitira jaialdi-jardunaldiak egin arte egin beharreko lanak. Kronograma hori Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren esku jarriko da, kontratua sinatu ondorengo lehen bi asteetan.

Horrez gain, entitate adjudikaziodunak azaldu beharko du zein izanen den programazioa eta zein ikastetxek parte hartuko duten jaialdi-jardunaldietan, 30 eguneko aurrerapenarekin.

Komunikazio-lanak beste enpresa batek eginen baditu, bi enpresek modu koordinatuan lan egin beharko dute, programaren zabalkundea eta publizitatea elkarrekin egiteko.

### **22.3.2. Jaialdi-jardunaldien antolaketa**

#### **Aldez aurreko lanak:**

- Tailerrak diseinatu eta definitzea, kontratuaren xede diren ikasleen beharrak eta interesak identifikatu ondoren. Horretarako, kontsultak egiten zaizkie ikastetxeei, eta, ahal den neurrian, ikasleen iritzia ere jasoko da. Jaialdi-jardunaldien diseinuak bideratuta egon behar du giro ez-diskriminatzailea, atsegina, inklusiboa eta indarkeriarik gabea sortzera.
- Hitzaldiak antolatu eta edukiak zehaztea.
- Ikastetxeekin koordinatzea, izena emateko orduan.
- Garraio-zerbitzua antolatzea (autobusak erreserbatu, ordutegiak zehaztu, etab.), Iruñera joateko hiri-garraio publikorik ez duten ikastetxeetarako.
- Izena eman duten ikastetxeekin harremanetan egotea eta gainerako izapideetan laguntzea.
- Jaialdi-jardunaldien eremua erreserbatzea eta beharrezko aseguruak kontratatzea.
- Eremuak muntatzea.
- Langileak kudeatzea eta kontratatzea (hizlariak, hezitzaileak, laguntzaileak...) eta jarduerak egiteko behar diren baliabide material guztiak eskuratzea (ordenagailuak, sareko konexioa, proiektagailua, lokalak, aseguruak...)

- <http://www.sareaneuskaraz.eus> webgunea kudeatzea, jaialdi-jardunaldiei buruzko informazioa eta programa ezagutarazteko.
- Eskaintza premia bereziak dituzten parte-hartzaileentzat egokitzea.

#### **Jaialdi-jardunaldietako lanak:**

- Parte-hartzaileak antolatzea.
- Parte-hartzaileei arreta ematea. Arreta berezia eskaini beharko zaie hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, eta haienzako beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira.
- Taldearen jardun proaktiboa sustatzea, giro ez-diskriminatzailea, atsegina, inklusiboa eta indarkeriarik gabea mantentzeko. Eta, beharrezkoa den kasuetan, gatazkak kudeatzea.
- Tailer, hitzaldi eta jarduera guztiak euskara hutsean eginen direla bermatzea.
- Autobusez joandako ikasleak Baluarte Biltzar Jauregiko plazan utzi beharko dira.

#### **22.3.3. Lantaldea**

Zerbitzua behar bezala emateko, entitate adjudikaziodunak lantalde egoki bat eratu beharko du. Lantalde horrek, gutxienez, profil hauetako kideak izan behako ditu:

##### **a) Proiektua zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen den pertsona bat.**

Haren ardurapean egonen dira proiektuaren koordinazio orokorra, kontratazioak, aseguruak, programaren diseinua eta balorazio-txostenaren aurkezpena eta jaialdi-jardunaldiak behar bezala funtzionatzeko behar diren kudeaketa guztiak.

Bete beharreko baldintzak:

- Unibertsitateko titulazioa.
- Euskararen C1 maila edo baliokidea duela egiaztatzen duen titulua.
- Gutxienez 2 urteko esperientzia antzeko jarduerak koordinatzen/antolatzen.

Bestalde, zuzendaritzaz eta koordinazioaz arduratzen denak kudeaketako teknikarien laguntza izanen du. Teknikari horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Euskararen C1 maila edo baliokidea duela egiaztatzen duen titulua.
- Gutxienez 6 hilabeteko esperientzia kontratuaren xedearen antzeko jardueretan.

Lanak hasi aurretik, entitate adjudikaziodunak honako hauek aurkeztu beharko ditu: jarduera aurrera eramateaz arduratuko den behin betiko lantaldeko kide guztien izen-abizenak, adina, nortasun-

agiria, titulazio akademikoa eta lan-esperientzia egiaztatzen dituen dokumentazioa, bai eta euskararen C1 ezagutza-maila (edo baliokidea) egiaztatzen duen dokumentua ere.

**b) Jaialdi-jardunaldiak antolatzeko eta egiteko behar diren langileak.**

Entitate adjudikaziodunak gutxieneko talde bat izan beharko du jaialdi-jardunaldiak egiteak dakartzan beharrei behar bezala erantzuteko. Hau da, jaialdi-jardunaldiak dinamizatzeko eta antolatzeko beharrezkoak diren langileak izan beharko ditu. Zehazki, profil hauetako langileak izan behar dute:

- Dinamizatzailerak. Euskararen ezagutzaren C1 maila egiaztatu beharko dute.
- Informatikako teknikariak.
- Muntatzeaz/desmuntatzeaz arduratuko diren langileak.

**22.3.4. Egindako lanaren balorazioa eta ebaluazioa**

Entitate adjudikaziodunak gogobetetze-inkesta bat egin beharko die parte hartzen duten ikastetxeei. Horrez gain, parte ez hartzeko zergatia azaltzeko eskatu beharko die hala erabaki duten ikastetxeei.

Bestalde, programa amaitzean, entitate adjudikaziodunak jardueraren eta emaitzaren azken memoria bat aurkeztu beharko du, eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari bidali. Memoria horretan, xeheki ebaluatu beharko du emandako zerbitzua eta zer neurritan bete diren proiektuaren helburuak, aurrez zehazturiko irizpideetan eta ebaluazio-sisteman oinarrituta. Era berean, ikasleen interes eta premiei buruz bildutako datuak jaso beharko ditu; horien artean, jarduerak izandako eraginaren dimentsioa zehazten lagunduko duten datu objektibo eta kuantifikagarriak (adibidez, parte-hartzaile kopurua, sexuaren eta ikastetxearen arabera bereizita).

Dokumentu horretan, xeheki jaso beharko ditu gogobetetasun-inkestaren emaitzak eta epe labur eta ertainean jarduerak izandako eragina neurtzeko tresnen emaitzak, eta azaldu beharko du, halaber, zein izan diren arrakastarik handiena eta txikiena izan duten tailerrak edo hitzaldiak. Azkenik, kontratua egikaritzean izandako gorabeheren berri eman beharko du memorian, eta egoera horiek hobetzeko proposamenak egin beharko ditu.

**22.3.5. Antolaketa eta funtzionamendua**

Entitate adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du, jarduerak egin bitartean, honako hauek egiteko:

- a) Programa aurkeztutako proposamenaren arabera aurrera eramatea.

- b) Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak egoki iritzitako kontrol- eta jarraipen-bileretan parte hartzea.
- c) Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari idatziz jakinaraztea proiektua egikaritzeko eragin negatiboa izan dezakeen edozein gorabehera. Horren aurrean, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak egoki deritzon erabakia hartuko du.

Proiektuaren zuzendari- eta koordinatzaile-lanak egiten dituen arduratuko da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin koordinatzeaz. Pertsona hori izanen da solaskide bakarra Euskarabidearekin, eta hark izanen du ahalmena entitate adjudikazioduneko gainerako langileei zuzenean eman beharreko agindu eta jarraibideak emateko.

Entitate adjudikaziodunak bere zuzendaritza eta kudeaketa propioa egingen du. Beraz, haren ardurapean egonen dira zerbitzuaren antolaketa, bai eta egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoa ere, eta bere gain hartuko du enpresa-arriskua.

Entitate adjudikaziodunak eskumen eskusiboa izanen du zerbitzuari atxikitako langileen gaineko zuzendaritza- eta funtzionamendu-ahalmenak gauzatzeko.

## **23. KONTRATAZIORAKO BESTE ZEHAZTAPEN TEKNIKO BATZUK**

---

### **23.1. Istripuak eta aseguruak**

Kontratu honek xede duen programa dela-eta kontratatutakoek eta parte-hartzaileek izaten ahal duten edozein istripu edo gertaera kaltegarri aurre egiteko, nahitaezko erantzukizun zibileko aseguruak izan beharko ditu entitate adjudikaziodunak, programa osorik estaltzen dutenak.

Lan-istripuekin, segurtasun-neurriekin eta gizarte-segurantzarekin loturiko neurri guztiak entitate adjudikaziodunaren kontura izanen da.

### **23.2. Egokitzapenak atzerapenen aurrean**

Entitate adjudikaziodunak egokitzapenen bat egin behar badu baldintza-agiri honetan jasotako betekizunen bat betetzean sortzen ahal diren zailtasunen edo atzerapenen aurrean, alde aurretik jakinarazi beharko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari, hark alde aurretik onar dezan.

### **23.3. Legezko betebeharrak**

Entitate adjudikaziodunak, kontratu honen xederako enplegatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu lan-legeriaren, gizarte-segurantzaren, laneko arriskuen prebentzioaren, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan.

Entitate adjudikaziodunak inola ere ez du langileen legez kanpoko lagapenik eragin behar.

#### **23.4. Proiektuaren kalitate teknikoa**

Entitate adjudikazioduna izanen da egindako lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazioen eta zerbitzuen erantzulea, bai eta kontratua egikaritzean izandako ez-egiteak, hutsegiteak, metodo desagokiak edo zuzenak ez diren ondorioak direla-eta Administrazioari edo hirugarrenei eragindako ondorioena ere. Entitate adjudikazioduna erantzukizunetik salbuetsiko da, soilik, antzemandako akatsak Administrazioaren agindu baten edo Administrazioak ezarritako baldintzen ondorio zuzenak direnean.

#### **23.5. Enpresaren kargurako zerbitzu osagarriak**

Entitate adjudikaziodunak zerbitzu osagarriak emanen ditu, baldin eta beharrezkoak badira kontratua behar bezala aurrera eramateko eta betetzeko (adibidez, lan- edo informazio-bileretara joatea). Lan horiek egiteagatik, ez du izanen eskubiderik ordainketa osagarria jasotzeko. Betebehar hori izanen du kontratua amaitu arte.

### III. ZATIA – ERANSKINAK

I. ERANSKINA - EKAB

II. ERANSKINA - BATERAKO PARTE-HARTZE EREDUA

III. ERANSKINA - PROPOSAMEN EKONOMIKOA

IV. ERANSKINA - FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

V. ERANSKINA - ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ZEINAREN BIDEZ ADIERAZTEN BAITA EZ DIRELA ALDATU NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUAK

**I. ERANSKINA**

**EKAB**

Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)

## II. ERANSKINA

### BATERAKO PARTE-HARTZE EREDUA

.....jaunak/andreak (NANA/IFZa:.....);

jakinarazpenetarako

helbidea:

....., PK:  
....., herria: ....., telefonoak: .....), bere  
izenean / ..... sozietatearen ordezkari gisara (kasuaren arabera)  
(IFZa: .....) adierazten du

(talde batean elkarturik parte hartzen duten lizitatzailleen kasuan, adierazi egokia dena:)

o aldi baterako propio eraturako enpresa-elkartean aurkezten direla

Bai  Ez

Enpresaren izena..... =~~2~~Partaidetza % .....

Enpresaren izena..... =~~2~~Partaidetza % .....

o batera aurkezten direla (kasu horretan, adierazi bakoitzaren partaidetza).

Bai  Ez

Enpresaren izena..... =~~2~~Partaidetza % .....

Enpresaren izena..... =~~2~~Partaidetza % .....

(Erantzukizunpeko adierazpena faltsutzeak kontratatzeke debekua ekarriko du, hala xedatzen baitu Kontratuei buruzko Foru Legeak, 22.1.i artikuluan).

(Tokia, eguna eta lizitatzaillearen edo lizitatzailleen sinadura)

### III. ERANSKINA

#### PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Sinatzen duenak, \_\_\_\_\_ jaunak/andreak (NANa edo IFZa: \_\_\_\_\_; helbidea: \_\_\_\_\_; telefonoa: \_\_\_\_\_), bere izenean edo \_\_\_\_\_ ordezkatzuz, informazioa jaso du “Sarean Euskaraz” ekimena –informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) eta kultura digitalaren arloan gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko jaialdi-jardunaldiak– kontratatzeke proiektuari, administrazio-klausulen agiriari eta zehaztapen teknikoei buruz, eta, beraz, adierazten du konpromisoa hartzen duela kontratu hori egikaritzeko, zehazturiko baldintzak zorrozki betez, eta hori horrela izanik, eskaintza hau aurkezten du:

-

#### PREZIOA

Garraioaren prezioa: \_\_\_\_\_ euro (gehi BEZa) autobuseko.i

Kontratuaren gainerako prezioa: \_\_\_\_\_ euro (gehi BEZa).

(tokia, data eta sinadura)

IV. ERANSKINA

**FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN DIREN IRIZPIDEAK**

**a) Irizpide sozialak. Gehienez 10 puntu.**

**Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea:**

% 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeagatik (pertsona horiek kontratatuta egon behar dute, gutxienez, azken 6 hilabeteetan):

- Pertsona bat: 2,5 puntu
- Pertsona bat baino gehiago: 5 puntu

		Izen-deiturak
Desgaitasuna kontratatutakoak:	izanik	

**Genero-berdintasunerako neurriak:**

- Zerbitzua emanen duen lantaldeak genero-berdintasunaren arloan duen prestakuntza egiaztatuz gero, 2,5 puntu egiaztigiri bakoitzeko.
- Kontratua egikaritzearekin lotutako ardura-postu jakin batzuetarako emakumeak izendatuz gero, 2,5 puntu izendapen bakoitzeko.

Zerbitzua emango duen lantaldeak genero-berdintasunaren arloan duen prestakuntza egiaztatzea	Titulazioa	Titulazioa duen pertsona	Ordu kopurua

		Izen-deiturak
Kontratua egikaritzearekin lotutako espezifikoko batzuetarako izendatzea	erantzukizun lanpostu jakin emakumeak	



## V. ERANSKINA

### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ZEINAREN BIDEZ ADIERAZTEN BAITA EZ DIRELA ALDATU NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUAK\*

\_\_\_\_\_jaunak/andreak (NAN zenbakia: \_\_\_\_\_ ), Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailen Erregistroan \_\_\_\_\_ zenbakiarekin inskribatutako enpresaren \_\_\_\_\_ gisa (1), neure erantzukizunpean aitortzen dut indarrean daudela Lizitatzailen Erregistroan jasotzen diren entitatearen datuak, ez direla aldatu, eta bat datozela Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailen Erregistroan inskribatzeko ziurtagirian ageri diren datuekin (espediente-zenbakia: \_\_\_\_\_ ). Dokumentu honekin batera aurkezten dut ziurtagiria, hartara, parte hartu ahal izateko informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) eta kultura digitalaren arloan gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko jardunaldiak kontratatzekeko lizitazioan.

Adierazi administratzailea ala ahalduna den.

(tokia, data eta sinadura)

\* Informazio gehiago hemen: [www.nafarroa.eus](http://www.nafarroa.eus) (urratsak: *zerbitzu-katalogoa*, *kontratazioak* eta lotutako esteketan, jo *Lizitatzailen Borondatezko Erregistrora*)